Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Matilde Alkorta Guenetxea

Berriz, Bizkaia (1929)



Aurkibidea

Biografia



Sarria auzoko "Etxebarri" baserrian jaioa. Ama zen bertakoa; aita, berriz, Garaikoa. Zazpi neba-arreba izan ziren. Dantzaria izandakoa; aitarengandik zetorkien zaletasuna anai-arrebei. Hilario anaiarekin batera egin zitzaion elkarrizketa, Berrizko antzinako kontuak jasotzeko.

Zintak

BRZ-068

- **Proiektua**: Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gerenabarrena, Maite
- **Data**: 2007-01-01
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Gerenabarrena, Maite

BRZ-069

- **Proiektua**: Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gerenabarrena, Maite
- **Data**: 2007-01-01
- **Iraupena**: 17 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Gerenabarrena, Maite

Pasarteak

1. Andikoako Dantzari-dantza; dantzari eta txistulariak

- **Erref**: BRZ-068/003
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:13:37. **Bukatu**: 00:16:23
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Ume-umetatik hasi ziren dantzan. Lehenengo Andikoako Dantzari-dantzan. Txistulariak. Aurreko dantzariak: euren aita, Agirrebeitiatarrak... Patxiko

txistulariak aukeratzen zituen dantzariak eta ez zekienari irakatsi ere bai. Aspalditik zetorren dantzarako ohitura.

2. San Antonioetan dantza-txapelketa

- **Erref**: BRZ-068/004
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:16:23. **Bukatu**: 00:17:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Dantza-txapelketetan ibiltzen ziren. Euren kontura ikasi zuten dantzan. Matildek fonografoarekin jarduten zuen dantzan. San Antonioetan egiten zen dantza-txapelketa. Gogoan du behin elurte handiarekin dantza egin zutela.

3. Garai batean nesken dantza-talderik ez

- **Erref**: BRZ-068/007
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:19:39. **Bukatu**: 00:20:53
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Berrizko dantza zaharrak. Orduan ez zegoen nesken talderik; gerora hasi zen. Hilario Zaldibarren ibili zen bi urtez dantzak irakasten eta lau talde izan zituen: bi neskenak eta bi mutilenak. Matildek dio lagun batek eta biak aurreskuaren eta atzeskuaren urratsak ikasi zituztela. Etxe batetik sei anaia dantzari.

4. Ezkontza eguneko zapiak; alargunei arrana

- **Erref**: BRZ-068/009
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:22:05. **Bukatu**: 00:23:42
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Ezkontza egunean emakumezkoari zapi bat jartzen zitzaion buruan eta gizonezkoari lepoan. Ezkondu ostean elizan kendu egiten zizkieten eta bertan gordetzen ziren. Alargunen bat ezkontzen baldin bazen, bezperan auzokoek arrana jotzen zuten haren etxean. Neskazaharrak eta mutilzaharrak Abadinora.

5. Garai bateko despedidak

- **Erref**: BRZ-068/011
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:24:32. **Bukatu**: 00:25:21
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Despedida handiak egiten ziren, neskak neskekin eta mutilak mutilekin. Mutilek tabernan afaria egiten zuten, Karteruenean, Ganekoetxen, Pedrojuanenean... Neskek etxean merienda: txokolatea, gailetak... Ezkontzen zenari oparia egiten zitzaion.

6. Patxik eta Nikolasak egiten zituzten abarketak

- **Erref**: BRZ-068/016
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:30:11. **Bukatu**: 00:31:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

Laburpena:
Errotetako Patxik eta Nikolasak egiten zituzten abarketak. Zentrala zaintzeko ardura zuten. Gero Pantaleonek saltzen zituen.

7. Behien inguruko azalpenak

- **Erref**: BRZ-068/023
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:40:28. **Bukatu**: 00:42:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Era guztietako behiak eduki zituzten etxean. Zeintzuk ziren esnetarako eta haragitarako onenak. Lehen bertakoak izaten ziren. Kanpora ateratzeko, txintxarriak jartzen zitzaizkien. Etxeratutakoan, kendu eta jaso. Maiatzean botatzen ziren larrera behiak. Bakoitzak bere izena izaten zuen. Azokan erosten ziren; inguruko azokak. Ardi eta ahuntzak ere izan zituzten etxean. Zaldi bat ere bai behin.

8. Otzara, asto-sillak, mantarra, albarda...

- **Erref**: BRZ-068/024
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:42:35. **Bukatu**: 00:44:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Gurdiak nolakoak izaten ziren. Asto-karroa. Otzarak, kantinak eramateko. Egurrezko asto-sillak belarra eta beste gai batzuk eramateko. Mantarra, "albardie", "zinttie". Garai batean astoei burukoa jartzen zitzaien.

9. Laietan nola egiten zen; baserriko tresnak

- **Erref**: BRZ-068/029
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:46:45. **Bukatu**: 00:49:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Laietan nola egiten zuten. Zohia. Auzorik auzo egiten zen, elkarri lagunduta. Goldea. Kodainak. Igitaia. Eskuarea. Sardea. Lau-hortza. Aitzur ezberdinak. Bakoitza zertarako izaten zen. Errementariak egiten zituen.

10. Kobrezko galdarak; lixiba

- **Erref**: BRZ-068/030
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:49:29. **Bukatu**: 00:50:53
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Kobrezko galdarak egiten ziren Bernan. Ura berotzeko izaten ziren galdarak. Lixiba-ontzia. Lixiba-harria errekan. Sukaldean lurrezko lapikoak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com